

PREBENTZIO-NEURRIAK

CaixaBank Payments & Consumer-en argi hitz egin nahi dugu zurekin. Horregatik, prebentzio neurriak sortu ditugu **ordainketa atzeratua (*revolving* delakoa)** arduraz erabil dezazun.

Ordainketa atzeratua (*revolving*) zure txartelarekin edo kredituarekin erabili duzun dirua epeka ordaintzeko modu bat da.

Ordainketa atzeratzea (*revolving*) arduraz erabiltzeko neurriak:

1. PUBLIZITATE ARGIA ETA GARDENTASUNA

Kontratatzan ari zaren produktua ondo ulertzea nahi dugu.

Horregatik:

- zure zalantzei erantzuteko behar bezala informatutako kudeatzaileak ditugu.
- gure txartel eta kredituei buruz ematen dugun informazio guztia berrikusi egiten dugu, hala nola publizitatea eta dendetan saltzea.

Ordainketa atzeratua (*revolving*) kontratatu aurretik informazio garrantzitsu guztia ezagutzea nahi dugu.

2. INFORMAZIOA BETI ESKURA

Ordainketa atzeratuari (*revolving*) buruzko informazioa gure webgunean aurkituko duzu.

Hala, nahi duzunean kontsulta dezakezu, ordainketa modu horren funtzionamendua ondo ulertzeko.

3. ZURETZAT EGOKIA DEN PRODUKTUA

Ordainketa atzeratua (*revolving*) eman aurretik zure egoera ekonomikoa aztertuko dugu.

Horrela, zuretzat aukera ona den egiaztatuko dugu.

Finantza-produktu guztiak ez dira egokiak pertsona guztientzat.

4. KONTRATU ULERTERRAZAK

Sinatu aurretik ematen dizugun informazioa eta kontratua argi eta garbi prestatzen ditugu.

Horretarako:

- Hizkera erraza erabiltzen dugu.
- Ordaintzeko moduen kalkulu-adibideak aurkeztuko dizkizugu.
- Kontratazio-prozesu osoa berrikusten dugu.
- Informazio garrantzitsu guztia jasotzen duzula egiaztatzen dugu.

5. KREDITU ARDURATSUA

Zure egoera ekonomikora egokitutako kreditua eskaintzen dizugu.

Horregatik, kontuan hartzen dugu maileguan ematen dizugun diruaren % 25 urtero itzuli ahal izango duzula, gutxienez.

Adibidez:

Maileguan 1.000 € ematen badizkizugu,
urtero gutxienez 250 € itzultzeko aukera izan behar duzu.

6. ORDAINKETA ATZERATUA (*REVOLVING*) HOBETO ERABILTZEKO AHOLKUAK

Zure txartelaren hileko laburpenean,
adibideen bitartez,
zure zorra nola murriztu erakutsiko dizugu.

Halaber, hileko kuotaren zenbatekoa aldatuz gero
zenbat aurreztu dezakezun erakutsiko dizugu.

7. GUTXIENeko KUOTA ZORRA EZ LUZATZEKO

Zuk aukeratuko duzu hilero ordaindu nahi duzun kuota.

CaixaBank Payments & Consumer-en ziurtatzen dugu
zure zorra ez dela denboran luzeegian luzatuko.
Horregatik, gutxieneko zenbateko bat finkatuko dugu,
hilero ordaindu beharko duzuna (kuota).

Kuota bakoitzarekin maileguan emandako diruaren zati bat eta interesak ordainduko dituzu.

Horrela, zorrak gehienez 5 urte eta erdi iraungo du, dirua lehen aldiz erabiltzen duzunetik.

Gainera, nahi izanez gero, kuota handiagoa hauta dezakezu, dirua denbora laburragoan itzultzeko.

8. ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Jasotzen ditugun kexak eta erreklamazioak aztertu egiten ditugu.

Horrela:

- Arazoak detektatzen ditugu.
- Gardentasuna hobetzen dugu.
- Ondo informatzen zaitugula eta arduraz jokatzeko dugula ziurtatzen dugu.